



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-05-30

VII.URTEA 1.715.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



I. GARCIA

MAURICIO GEOVANI ETA ANA DELIA ROMERO

«Aiztondotik jasotzen dugun laguntza oso garrantzitsua da guretzat»

ZIZURKIL Aiztondo bailara eta El Salvadorreko Segundo Montes Komunitatearen arteko Senidetze Eguna ospatuko dute gaur 4

Txinparte Antzerki Taldeko aktoreak sarituak izan dira Barañainen

LEITZA V. Alegiatxo lehiaketan, Aktoreen Zerrenda Onenaren saria eskuratu dute 7

Hiri jasangarria saria 'Tolosa haizeberritu' proiektuagatik

TOLOSA Forum Ambiental fundazioak eman dio Atmosfera sailean; atzo jaso zuten Bartzelonan 3

Uztailaren 2an izango da Voith-Gorostidiko babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa

TOLOSA Hautagaien behin behineko zerrenda onartu da 3

JESUS ARREGI
TLHI-KO ZUZENDARIA

«Elkar ekintza hobetu nahi dugu irakasleen eta ikasleen artean»

TOLOSA Ikasturte berrirako proiektuak azaldu ditu 2



ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

IES Hernani BHI
A. Iturriaga - K. Labaka



ELEKTRIZITATEA

- Instalazio elektriko eta automatikoak (Erdi Maila)
- Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

MEKANIKA

- Mekanizazioa (Erdi Maila)
- Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa) (Goi Maila)

A. ITURRIAGA Santa Barbara auzoa z/g Tel.: 943 551188 Faxa: 943 552271
K. LABAKA Karmelo Labaka 7 Tel.: 943 551958 Faxa: 943 330550
institutua@hernanibhi.com • www.hernanibhi.com • 20120 HERNANI

AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 12ra



E | **Elkarrizketa**

JESUS ARREGI | Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuko zuzendaria



HITZA

«Ikasle eta irakasleen arteko elkar ekintza hobetu nahi dugu»

Hezkuntza » Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutukoak datorren ikasturtera begira jarri dira jada, eta hainbat proiektu dituzte horretarako.

ESTI EZEIZA

Aurtengo ikasturtea amaitzean da eta hurrengoari begira jarrita dauka jada Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutukoak. Martxan dituzten proiektuen inguruan eta aurrera begira dituzten egitasmoen mintzatu da Jesus Arregi zuzendaria.

Datorren ikasturtera begira, formakuntza sistema berriak aztertzeko ari zarete.

Formakuntza sistemak etengabe aldatuz doaz. Ikasle eta irakasleen artean dagoen elkar ekintza hobetu nahi dugu. Horretarako, beste lau ikastetxerekin batera, sistema berri bat martxan jarrita daukagu. **Sistema hau zertan datza?**

Honekin gai guztiak lantzen edo nahasten dira. Ikasleei proiektu bat egin behar dutela esaten diegu, eta hau burutzeko, atal guztiak kontrolatu beharko dituzte. Beraien arlokoak ez ezik, gainontzekoak ere ezagutu beharko dituzte. Esaterako, administrazio-koei erosketak egiteko esanez. Lehendabizi, ikusi beharko dute produktuko non dauden, hori saltezek zein kostu izango duen, eta azkenik, saldu ere egin beharko

dute. Mekaniko bati berriz, makina bat egiteko esaten diegu. Lehendabizi, makinaren diseinua egin beharko du, ondoren, zein erosketa egin behar dituen aztertu, honen kostuak kalkulatu atera eta materiala erosi. Material hori moldatu, eta amaitzeko, saldu.

Sistema honek, ikaslearen autonomia sustatzeko balio du, beraz. Hori da, autonomoago izateko aukera eskaintzen die ikasleei. Irakaslea, nolabait, pasibo dago, kezak erantzuteko bakarrik dago hor. Honek laguntzaile edo aholkulari lana betetzen du.

Nola neurtzen dituzte emaitzak? Hor, gauzak ongi egiten dituzten edo ez neurtu beharrean, beraien prestutasuna eta iniziatiba baloratzen da. Ekintzailetasunaren arabera neurtzen da neurri handi batean. Langile batek, askatasuna izango balu, egingo lukeen bidea isladatzen da bertan.

Zein ziklotan erabiltzen duzue sistema hau?

Oraingoz, galdaragintza eta administrazioa bakarrik dago indarrean. Datorren ikasturtean ere honekin jarraituko dugu, baina ez guk bakarrik, baita beste lau ikastetxe-

ek ere. Luzera begira, asmoa da ziklo guztietan jartzea, baina ikusi beharra dago. Ekainean egingo da neurketa bat, eta horren arabera, erabaki batzuk hartuko dira.

Zeintzuk dira sistema honen onurak?

Handienetako bat da, bizimodu errealean gertatzen den bezala, gauzak ez direla atalka joaten. Bestalde, beraiek egiten dutenez dena, gehiago inplikatu diren dira eta gusturago aritzen dira.

Orain arte, emaitza onak jaso al dituzte?

Bai, oso onak. Esan beharra dago hala ere, antolaketa oso konplexua dela, gauza asko aldatu behar izan dira. Irakasleek ez dute ordutegi zehatz bat. Orain arteko antolaketak eta sistemak onenak ez dute zerikusirik. Baita formak ere. Ikas-

Gauzak ongi egiten dituzten edo ez neurtu beharrean beraien iniziatiba baloratzen dugu

leei hanka sartzen uzten diegu, eta ohartzen diren arte utzi, bide zuzena zein den aurkitu arte.

Enpresek, langileak hartzeko garraian, zer da bilatzen dutena?

Lantegiak, langileak hartzeko garraian, gero eta balio gehiago ematen diote ekintzailetasunari, eta lanerako duten prestutasunari.

Karta Erasmus delakoa ere eskuratu duzue.

Bai, Erasmus programa dela eta jaso dugu. Honek 2013ra arte bekak ziurtatzen dizkigu.

Krisia dela eta, neurri batzuk hartu dituzte.

Langileen formazio eskaerak handitu egin dira, baita langabetuenak ere. Formazio honi lotuta Goierri-izeneko egitasmoa jarri dugu martxan.

Nola azalduko zenuke, zer den Goierri+?

Iaz jarri genuen martxan egitasmo hau. Zenbait ikastetxek ikusi genuen enpresei ematen zaien zerbitzua hobetu eta osatu egin behar zela. Hori dela eta, beste bost ikastetxerekin batera, Lanbide Heziketako sailburuordetzaren laguntzarekin hiru urtetako proiektu batetan sartuta gaude. Ekimen honen helburua da, enpresak dituen formazio beharren diagnosi egin eta gero, formazio behar honi erantzuna ematea. Honetarako, sistema berezi bat egin dugu, neurtzeko, protokolo bat erabiliz, zeintzuk diren bertako langileek dituzten gabeziak. Hau da, langile *perfektua* izateko beharko litzuzkeen ikasketak zeintzuk diren aztertu, beraienekin kontrastatu eta hauek eskaintzen dizkiegu. Horretarako, azterketa hauek egiteko bi irakasle prestatu ditugu. Azterketa hauek egin eta gero, onena litzateke, en-

presek eskatzea ikastaroak, gabezia horiek gainditu ahal izateko bertako langileek.

Zer nolako enpresei balio die proiektu honek?

Enpresa txikiei balio die batez ere formazio sistema honek. Dagoeneko sei diagnosi egin ditugu eta hiru proiektu garatu.

Formakuntza eskaintzeaz gain, zerbitzu teknikoak ere eskaintzen dituzte.

Bai, beste zerbitzu bat ere eskaintzen dugu, non ikusten bada,

Krisia dela eta langileen formazio eskaerak handitu egin dira, baita langabetuenak ere

proiektu batean gure ikastetxeak enpresa bat teknologikoki lagundu dezakeela, lagundu egiten da. Tekniko lanak egiten ditugu, esaterako, enpresa batek gordeta duten planoak digitalizatzeko.

Bestalde, lehendabiziko aldiz, atzerriko ikasleak izan dituzte bertan, ikasten?

Bai, hau esperientzia berri bat izan da. Ikasturte honetan 12 txiletar etorri dira gure ikastetxera, beraien formazioa hobetzeko eta mantentzeko asmoz. Aukeraketa frogagorak gainditu behar izan dituzte beraien herrialdean hona etortzeko, hori dela, oso ikasle onak ziren. Zorte handia izan dute gainera. Goierriko CAF enpresan egin dituzte praktikak. Lantegi honek proiektu bat betetzeko asmoa du Txilen eta ikasle hauek aukeratu ditu horretarako. Hori dela eta, ikasle asko lan kontratua erekin itzultzen dira ara. Batzuk gainera, 20 urterako dute hau.

Lehiberri proiektuaren barruan ere bazaudete.

Tolosaldea bailaran lehiakortasuna bultzatzeko asmoz 2007an osatu zen foro hau. Hau zortzi enpresa (sektoreka ordezkatzuz), bi lanbide heziketako institutuak, hiru alkate eta Tolosaldea Garatzen agentziak osatzen dute. Bertako kide izateak Tolosaldeko etorkizena hobetzeko lan horretan, zenbait erabaki eta informazio garrantzitsutan parte hartzea bermatzen du.

Instalakuntzetan ere aldaketak egin dituzte.

Ekipamendu aldetik, galdaragintzarako industria robot bat erosi dugu eta irakasle bat formatzen ari da, hau erabiltzen ikasteko. Hau, ondoren, ikasleei erakusteko. Bestalde, soldadurak ondo daudela bermatzen duen ziurtagiri bat egin ahal izateko, irakasle bat formatu dugu. Hau da, Europa mailan soldadura bat homologatu ahal izateko zenbait frogak gainditu behar ditu, eta irakasle bat, azterketa horiek nola egiten diren ikasten aritu da. Hau egin ahal izateko, laborategi bat jarri dugu ikastetxean bertan, eta zerbitzu hau eskainiko diegu enpresei.

Hiri jasangarria saria jaso du Udalak Bartzelonan

Ingurumena » Forum Ambiental fundazioak eman dio Atmosfera kategorian, 'Tolosa haizeberri tu proiektuagatik'.



Garapen jasangarriaren alde egindako lanarengatik saritu dute Tolosa. J. SAIZAR

ERREDAKZIOA

Hiri jasangarria saria jaso du Tolosako Udalak. «Herriak garapen jasangarriaren alde egindako lanarengatik» eman dio hau Forum Ambiental izeneko fundazioak. Atzo goizean izan zen sari banaketa ekitaldia, Bartzelonako Fira Barrotian.

Tolosa Haizeberri tu egitasmoaren baitan, airearen kalitatea hobetzeko martxan jarri dituzten jarduerak hartu dituzte kontuan epaimahaiko kideek, saria ematerakoan. Atmosfera kategorian eman diote garaikurra.

Kaleetako trafikoa isurketak, herri barneko mugikortasun eran izandako aldaketak, garraio publikoa bultzatzea, oinezkoen eta txirrindularientzako sarearen hobekuntza, udal eraikinetako energia eraginkorraren hobetzea, klima aldaketaren aurkako udal jarduerak eta CO2aren hustubideztzat sortutako arboladiak izan dira proiektu honetako arlorik garrantzitsuenak. Zeregin hauek guztiak asko lagundu dute herriko airearen kalitatea hobetzen eta epaimaha-

hairean ustetan sariaren merezimu osoa izan du Tolosa haizeberri tu proiektuak.

Tolosako Udalaz gain, Murtziako hiria ere Hiri Jasangarria kategorian izan da saritua, ingurumena hobetzeko zenbait arlotan abian jarri dituen proiektuengatik.

Sariaren nondik norakoak

Hiri Jasangarria sariak urtero ematen dira eta Fundació Fórum Ambiental delakoan antolatzen ditu. Aurtengoa, zazpigarren sari banaketa izan da. Lehiaketa honetan parte hartzeko baldintzetako bat da, udalerririk 5.000 biztanletik gora izan behar dituela. Bestalde, bi urteko epean jasangarritasunera zuzendurik emaitza onak izan

eta garapen jasangarriarekin konpromiso politiko argia daukaten jarduerak aurrera eramane behar dituzte.

Epaimahaiko kideek hautagai ezaugarri hauek hartzen dituzte kontuan: Tokiko Agenda 21en Ingurumen Jardueraren Planaren burutze maila, eta honek, garapen jasangarriari egindako ekarpen frogak. Baita, arlo desberdinetan, egindako proiektuen gauzapena ere.

Bestalde, garapen jasangarria eta erabilitako praktiken ekarpenei buruzko erakundearen arteko lankidetzak nahiz lanpostuen sorreran izandako eragin garrantzitsuztat jotzen dute epaimahaikoek, erabakia hartzean.

Uztailaren 2an egingo da Voith-Gorostidiko Babes Ofizialekoen zozketa

Ekonomia » Hautagaien behin behineko zerrenda onartu da; hau ikusgai dago; erreklamazioetarako epea ekainaren 5a arte da.

ERREDAKZIOA

Uztailaren 2an egingo da Voith-Gorostidiko Babes Ofizialeko etxebizitzaren zozketa. Bestalde, maiatzaren 11n Udaleko Gobernu Batzarrak, zozketan parte hartu ahal izango dutenen behin behineko zerrenda onartu zuen. Zerrenda hauek ikusgai jarri dituzte udaletxeko iragarki-taulan eta bere webgunean. Honenbestez, interesatuek, ekainaren 5a bitartean egokituztat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Udalak Etxebideri eskatu zion Tolosa egoitzat aukeratu dutenen zerrenda. Etxebide eman dio 2008ko ekainaren 30era arte alta emandako zerrenda eta Udalak aztertuko du etxebizitza-gabeziari eta egoitzari buruzko baldintzak betetzen diren edo ez, hain zuzen ere, 2006ko martxoaren 28an onartu ziren Babes Ofizialeko etxebizitzaren adjudikaziorako oinarrietan jasotako baldintzak.

Jaso diren 1.651 eskabideak aztertuko eta 194 eskatzailek etxebi-

tza behararen baldintza betetzen ez zutela ziurtatu ondoren zerrendetatik baja eman diete. Gainontzeko artean, 581 eskatzailek betetzen dute oinarrietan jasotako errolda baldintza.

Babes Ofizialeko etxebizitzaren adjudikaziorako oinarrietan jasota dagoenaren arabera zozketarako onartu diren eskabideen artean hiru talde bereiztuko dira: mugikortasun urri iraukorra duten pertsonak, 35 urtetik beherako bizikideak (oinarriak onartu ziren garaian) eta gainontzekoak, kupo orokorra osatuko dutenak. Aipatutako oinarrietan jasota dagoenaren arabera, realojotarako etxebizitzak bereizi ondoren, gainontzeko etxebizitzaren %70 oinarriak onartu zirenegunean 35 urte baino gutxiago zutenentzako gordeko dira.

Etxebizitzetara dagokionez, realojok baiezatu ondoren, 79 izango dira jabetza erregimenean zozketatuko direnak. Aurrerago, Eusko Jaurlaritzak gainontzeko 44 etxebizitzak zozketatuko ditu alokairu sozialeko erregimenean.

Tasatuekin egin zen bezala, orain ere jabeak aukeratzeko bi zozketa egingo dira. Lehendabizikoan, uztailaren 2koan, talde bakoitzeko etxebizitzaren esleipendunak aukeratuko dira zozketa baten bitartez.

Gaur, «terrorismoaren biktimak» omenduko dituzte

Gizartea » Aranburu Jauregiaren ondoko lorategian izango da ekitaldia; musika, poesia eta beste izango da.

ERREDAKZIOA

«Terrorismoak hildako Tolosako biktimei» gaur egingo diete omenaldia Udal ordezkariak. Arratsaldeko seietan hasiko den ekitaldi

honetan musika, poesia eta arte plastikoak izango dira.

Ekitaldiari Tolosako alkatearen Jokin Bildarratzen agurrarekin emango diote hasiera. Ondoren, Arimaz Ganbera Orkestra tolosarraren musika entzun ahal izango da. Musikariek harizko instrumentuak eta klarinete hotsak eskaintzen dituzten bitartean, Xabier Leteren poesia baten irakurketa egingo da.

Segidan, Aranburu Jauregiko

Lorategian oroigarri moduan jarriko den instalazio artistikoa aurrerantziatuko dute Hodeitruk abesbatzeko haurrek, abesten duten bitartean. Plaka antzeko honetan, terrorismoak «ETA eta GAL erakundeek» hain zuzen, hildakoen izen-abizenak irakurri ahal izango dira.

Tolosako Udalak herritar zein kanpotarrei bertaratzeko gonbita luzatu nahi die, «terrorismoak hildako biktimei» senitartekoei de-

non sostengua jaso dezaten». Omenaldi-ekitaldia gaur burutuko da, 18:00etatik aurrera, Aranburu Jauregiko Lorategietan.

Gaurko omenaldi honek martxoaren 31n egindako Osoko Bilkuran du abiapuntua. Bertan mozio bat onartu zen, non agertzen zen, «terrorismoaren biktimei» aitortza eta omenaldi ekitaldi bat egitearen asmoa. Tolosako udalerritariek harremanen bat izan duten terrorismoaren biktimeak

oroitu nahi dituzte ekitaldi berezi honetan.

Udal ordezkariak martxoaren 31ko bilkuran agertu zuten, gaurko ekitaldiak bi helburu ditu: «alde batetik, inoiz kendu behar ez zitzaien duintasuna eta estimazio sozial eta politikoa itzultzea biktimei. Eta, bestetik, erakundearen duintasun moral eta zibikoa berrestea, helburu politikoa lortzeko metodo gisa indarkeria terroristak deslegitimatuz».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

arantzazu

bila dabilzan pertsonentzat - santutegia, kultura eta natura

ezagutu Arantzazu gaur
uste duzuna baino gehiago da

www.arantzazu.org

G Gutunak

Zorionak eta mila esker
Anoetako gazteei
Gaztetxearen
10. urteurrenean

Gaztetxe bat, hamar urte, ehunka gazte, milaka ekimen, gaztetxeoen amets eta herria helburu, hori eta gehiago izan eta da Anoetako Gaztetxea. Zorionak eta mila esker benetan Anoetako gaztediari, autogestioan eta parte-hartzean oinarrituta horrelako dinamika aurrrera eramatea posible dela erakustekoagatik herriari.

Hamar urte hauetan egindakoak, batzuetan ez hain egoera errezetan, herriko gazte eta ez hain gazteen erreferente izatea lortu dute. Adin ezberdinetako gazteen lotura eta bilgune dira une honetan.

Anoetako Gaztetxean dagoen dinamika herriari bizitasuna eta indar berritzea ekarri dio. Beraz guztion ardura da hau babestu eta laguntzeaz gain, denon artean herriko dinamika indartzea, hone-

kin ondorengo gazteei ziurtatuko baitiegu konpromisoan eta elkar-tasunean heziko dituen bilgune eta taldea.

Belaunaldiz belaunaldi herriaren aldeko konpromisoa erakutsi dute. Hor izan dira egin diren aldarrikapenetan euskara, berdintasuna, presoen eskubideak, apartheid salatzean, AHT bezalako proiektu txikitzaileen aurka... Azken finean herri honen eraikuntza eta eskubideen alde.

Idatzi honekin, bide batez, salatu nahi dugu urte hauetan eta bereziki azken hilabeteetan pairatzen ari diren edonolako eraso eta lapurretak. Animatu nahi ditugu bide horretan jarrai dezaten lanean eta Anoetako ezker abertzalearen aldeko eskaini nahi diegu elkartasuna eta elkarlanerako prestutasuna.

Herria astinduz! Gaztedia aurrrera!

Mikel Larrion eta Mikel Urkola
(Anoetako ezker abertzalearen izenean). Anoeta.

Gazte independentistek
Ilrekin bat egiten dute

ERREDAKZIOA

Villabonako gazte independentistek ohar batean jakinarazi dutenez, datozen Europako hauteskuntetarako Iniziatiba Internazionalistak (II) aurkeztutako hautagaitzarekin bat egiten dutela, «gazte ezkeriar eta independentista garen neurrian». Gaineratzen dutenez, Iniziatiba Internaziona-

listarentzat eskatzen dute bozka, «Europako eta mundu guztiko zapalduetako herrien arteko elkar-tasuna, nazioek duten autodeterminazio eskubidea, ezkerreko politika iraultzailea, benetako berdintasunaren aldeko politika... babesten ditugulako». Herriko Kale Nagusian, «honenagatik guztiagatik», mural bat egin dute.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Taxi lizentzia.** Tolo sako taxi lizentzia saltzen dut. Informazio gehiago nahi duenak deitu: 616 542 960.

■ **Lokala.** Iruran lokala salgai (120 m²). Zatikatuta daiteke. Bi sarrera independente. N-1etik gertu. Oso aproposa hainbat erabilerarako. 943 36 26 16.

E Elkarrizketa MAURICIO GEOVANI DIEZ ETA ANA DELIA ROMERO

«Jasotako laguntza oso garrantzitsua da guretzako»

IMANOL GARCIA

Aiztondo bailara eta El Salvadorreko Segundo Montes Komunitatearen arteko Senidetze Eguna ospatuko dute gaur lehenengo aldiz Zizurkilan. Bertan izango dira, El Salvadorretik etorrita, Mauricio Geovani Diez Meangerako alkatea (udalherri horretan dago Segundo Montes komunitatea) eta Ana Delia Romero Silem hezkuntza-erakundearen lehendakariordea eta herri irakaslea.

Zer suposatzen du zuentzat Aiztondo bailarako lau herrirekin anaituta izatea?

M.G. Diez. Segundo Montes Komunitatea Meangera udalerrian lekutu zen 1989. urtetik aurrera. Bertara iritsi ginen soinean genuenarekin bakarrik. Ez genuen azpiegiturarik, zuhaitzak moztu ondorengelditu zen lur zati bat beste-rik ez. Lau herri hauen bitartez proiektu ezberdinak finantziatu ahal izan ditugu. Esaterako, 400 etxebizitza eraiki ahal izan dira. Pixkanaka jendearen bizi baldintzak hobetzen joan dira, alde batetik bertako jendearen eraginagatik eta bestetik Aiztondotik eman den laguntzarekin. Orain ur edangarriaren gaiarekin ari gara lanean eta egun 1.050 familia ari dira jasotzen onura hori. Oso garrantzitsua da udalherri hauetatik urte hauetan jaso dugun laguntza gure garapenerako.

Zein izan da 20 urte hauetako bi- zipena?

M.G. Diez. Gerraren hasieran ateraginen El Salvadorretik Honduraserara eta bakeari buruz hitz egiten hasterakoan itzuli ginen. Prozesu honetan hainbat gauza izan dira. Ezkerren eta eskubiaren arteko ezberdintasuna oso handia zen. Pixkanaka, eskubideen alde eginez eskuetan armekin aritzen zen taldea alderdi politiko bihurtu zen. Hortik sortzen hasi ziren bost-terea hartzeko beste aukerak eta hain justu martxoan gertatu zen hori FMLNren garaipenarekin. Aldaketa handi bat izan da urte



I. GARCIA

hauetan guztietan. Segundo Montes bera, gerrilatik etorritako gerrako veteranoez osatuta zegoen batez ere. Esan bezala, soinean genuenarekin hasi ginen, gerrak txikitutako herri batean, eta pixkanaka hobetzen joan da oinarritzko azpiegiturretan. 20 urte hauetan aldaketa handia izan da.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

M.G. Diez. Oinarritzko azpiegitura garatzen ari gara: energia elektrikoa, ur edangarria, errepideak, hezkuntza... Oraingo apustua produktzioaren inguruan da. Eskoletan baratzak bultzatzen ari gara, haurrek kultura berri bat izan dezaten eta, adibidez, barazkiak produzitzen has daitezke. Gure jendea iraupeneko nekazaritzatik dator, hau da, artoa, babarrunak eta sorgoa produzitzetik. Desnutrizio handia dago. Beraz, kontzientzia sortzen joan behar dugu beste produktibatzuk ere produzitzeko elikadura aberasten joateko.

Segundo Montes historian zehar herri hezkuntza garrantzi handia du.

A.D. Romero. Erbestean geundenean hasi ziren sortzen eskolak, oso modu behartsuan. Behin El Salvadorren, Segundo Montes Komunitatean eskolak eraiki ahal izan ditugu hemengo laguntzarekin. Orduetik hasitako hezkuntza prozesuak jarraitzen du eta Segundo Montes lanean jarraitzen dutenak herri irakasleak gara.

Zertan datza herri hezkuntzak?

A.D. Romero. Analfabetismoa oso hedatuta zegoen. Ni, esaterako, 11 urterekin hasi nintzen helduekin lan egiten. Herri hezkuntza jasotako ezagutza gero elkarbanatu egiten dugu.

M.G. Diez. Oso garrantzitsua da ere herri hezkuntza kontzientziaren sorrera bultzatzea. Adibidez, p letra erakusten zigtutenean, pobrezia buruzko gauzak erakusten zizkiguten, adibidez ondoko esanez: «Estatuak bultzatutako politika baztertzailen ondorioa da pobrezia». Alde batetik irakurtzen erakusten zigtuten eta bestetik errealitate politikoari buruz kontziente egiten ginen.

Irurako Udala
IRAGARKIA

Udal honek begirak kontratatu behar ditu "Dona Pasa" udaliko inkesterako, ekarriaren 20% utzaileran 30era arte, goizez, jardunaldi erdi arazoak. Parte hartu ahal izateko beharrezkoa da 18 urte beteak izatea eta euskaraz jakitza (EHA maha edo balokidaren bidez) finkatutako aukeraketen, koronaren harrak da irura eragotzen, esateko edo eta hezkuntza kasietan, esateko eta eskarmentu izatea arlo honetan. Interesak kurrikularen eta gaitasunen egutegiarekin aurkitu behar duzute ekarriaren 1etik 10ra udal bulegotara. Irurak, 2009ko maiatzaren 27an. Auzoa

HITZAK
2 harpidedunentzat
bina sarrera ditu

aspepota.com

sarrerak

saridunak

- Pedro Mari Olano (Tolosa)
- Larraitz Ezeizabarrena (Tolosa)

Maiatzak 30 • Larunbata
16:45ean • Tolosako Beotibarren

sarrerak leihatlan bertan izango dituzue

Uriarte - Galarza VI
Befoso - Iza

OLAIZOLA - MENDIZABAL II
GONZALEZ - LASKURAIN

Chafee - Otxandorena
Berasaluze IX - Lasa III

Diseñu

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
PUBLIZITATE GRAFIKAN

TITULAZIOA A. IKASTURTE BIKOITZAN BIKI KALAKOITZAKAN

Izen-ematea: www.diseñu.com

IES Uribegui-Komunitate DH
Polgo 14, 4A, 20011 Jonkada
Larundegia: info@diseñu.com
tel: 943454266

Diseño
13-16 2007
13/11/2007

Energia eta ekonomia aurreztearen alde

Ingurumena » Ekainaren Sean Ingurumen Eguna dela eta, hainbat ekitaldi izango dira eskualdean Aste Berdearen baitan.

ERREDAKZIOA

«Ingurumena babesteak gure poltsikoak babesten ere lagun dezaieke elako». Hori da Tolosaldeko udalek Nazioarteko Ingurumena aste honetan helarazi nahi duten mezua. Kontsumo arduratsuari buruzko lehiaketa Adunan, Bigarren Eskuko Azoka Villabonan edo eguzki labeak egiten ikasteko tailerra Berastegi eta Amezketan dira aste honetan zehar Tolosaldeko udalek prestatu dituzten jardueratarako batzuk. Bihar hasi eta ekainaren 10era arte irauango dute ekitaldiak.

Aste Berdearen antolatzaileek azaltzen dutenez, «badirudi behar ez diren erabilerak itzaltzea edo arropa garbitzerakoan 20 gradutik beherako tenperaturatan egitea bezalako ekintza xumeak ez dutela inolako garrantzirik nazioarteko ingurumenaren babesean, baina ez dira neurri handiak hartu behar horretarako. Nahikoa da eguneroko bizitzan ohitura txiki batzuk soilik aldatzea». Horrela, ekonomia-aren alde ere egingo dela diote. Gaurtik aurrera egingo diren ekintza horiez gain, Tolosalde-

» EGITARAUA (EKAINAREN 5A ARTE)

Maiatzak 30, gaur

■ **Irura**
16:00. Gazteguneko gazteekin tolosaldeko bide gorriak ezagutzuz patinetan irteera.

Maiatzak 31, bihar

■ **Belauntza**
09:30. Mendi irteera: Belauntza-Larte-Gaztelu.

Ekainak 1, astelehena

■ **Villabona**
19:00. Zinekluba, *Cenizas del cielo*, Gurea aretoa.

■ **Irura**
17:30. Aromaterapia ikastaroa.
17:30. Haurrentzat dokumentala *ludotekan*.

■ **Aduna**
Kontsumo arduratsuari buruzko ideia lehiaketa (ekainaren 1etik-8ra arte). Informazioa: 943 69 25 71 edo www.aduna.net.

■ **Berastegi**
20:00. Zinekluba, *Cenizas del cielo*, eskolako aretoa.

Ekainak 2, asteartea

■ **Elduain**
20:00. Zinekluba, *El linxe perdido*.
■ **Villabona eta Zizurkil**
19:00-21:00. Hegaztiak behatzen

ko hainbat udalek Nazio Batuen Erakundeak sustatutako GAP programa jarri dute abian. Eskual-

deko familia batzuk garraioa, ura eta energiaren kontsumoa, eta erosketak eta etxeko hondakinen

tan ez da plastikozko poltsarik izango. Boltsa berrerabilgarriak udaletxean.

■ **Zizurkil**
20:15. *Uhalde Enararen gestioa Zizurkil*en hitzaldia Atxulondo kultur etxean.

■ **Berastegi**
15:00. Erreka garbiketa.

■ **Ernioaldea**
09:00-14:00. Helduentzako irteera Azpeitiko Lapatx zabortegira. Izen-ematea: 689 74 94 39.

■ **Ekainak 3, asteazkena**
■ **Villabona eta Zizurkil**
19:00-21:00. Hegaztiak behatzen ikasteko ikastaroa Zizurkilgo kultur etxean.

■ **Irura**
17:30. Aromaterapia ikastaroa.
17:30. Ikastolako haurrekin mural pintaketa Gaztekluko gazteek larduta.

■ **Berastegi**
20:00. Konpostia ikastaroa eskolako aretoa.
■ **Amezket**
18:00. Animaziozko filma, *El linxe perdido*, erabilera anitzeko gelan.

■ **Ekainak 4, osteguna**
■ **Villabona**
19:00. *Cenizas en el cielo* ikusentzuzko emango dute Gurea aretoa.

■ **Irura**
Plastikorik gabeko eguna. Dende-

deko familia batzuk garraioa, ura eta energiaren kontsumoa, eta erosketak eta etxeko hondakinen

tan ez da plastikozko poltsarik izango. Boltsa berrerabilgarriak udaletxean.

■ **Zizurkil**
20:15. *Uhalde Enararen gestioa Zizurkil*en hitzaldia Atxulondo kultur etxean.

■ **Berastegi**
15:00. Erreka garbiketa.

■ **Ernioaldea**
09:00-14:00. Helduentzako irteera Azpeitiko Lapatx zabortegira. Izen-ematea: 689 74 94 39.

■ **Ekainak 5, ostirala**
■ **Ingurumenaren Nazioarteko Eguna**
■ **Ernioaldea**
17:00-21:00. Bigarren eskuko azoka Villabonako herriko plazan. Salmenta postuak, berrerabilteze tailerrak eta kale animazioa. Zerbait saldu nahi duenak, izena ematea eta informazioa: 943 367534 edo ekocenter@emaus.com.

■ **Aduna**
Arratsaldean ingurumen edukiko filmen emanaldia kultur aretoan.

■ **Berrobi**
22:00. Zinekluba, *Cenizas del cielo* filmarekin.
■ **Belauntza**
18:30. Animaziozko filma, *El linxe perdido*, Kultur Etxean.

■ **Amezket**
20:00. Zinekluba, *Cenizas del cielo*, erabilera anitzeko gelan.

■ **Aduna**
Arratsaldean ingurumen edukiko filmen emanaldia kultur aretoan.

■ **Berrobi**
22:00. Zinekluba, *Cenizas del cielo* filmarekin.
■ **Belauntza**
18:30. Animaziozko filma, *El linxe perdido*, Kultur Etxean.

■ **Amezket**
20:00. Zinekluba, *Cenizas del cielo*, erabilera anitzeko gelan.

■ **Aduna**
Arratsaldean ingurumen edukiko filmen emanaldia kultur aretoan.

■ **Berrobi**
22:00. Zinekluba, *Cenizas del cielo* filmarekin.
■ **Belauntza**
18:30. Animaziozko filma, *El linxe perdido*, Kultur Etxean.

■ **Amezket**
20:00. Zinekluba, *Cenizas del cielo*, erabilera anitzeko gelan.

■ **Aduna**
Arratsaldean ingurumen edukiko filmen emanaldia kultur aretoan.

Laburrak

Tolosa Kantari egingo dute gaur Alde Zaharrean

TOLOSA • Hileroko hitzorduarekin jarraituz, gaur Tolosa Kantari kantujira egingo dute Tolosako Alde Zaharrean, 12:00etatik aurrera, Zontokaletik abiatuta. Oraingo saio honetan Giroarte dultzainero taldeak lagunduko du. Nahi duenak, kantatzea gustuko izanez gero, aukera polita du gaurkoan.

Herri afaria antolatu du ezker abertzaleak

TOLOSA • Tolosako ezker abertzaleak herri afaria antolatu du datorren ostiralerako, ekainak 5, 21:00etan Berdura plazan. «Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetan baitan antolaturiko ekimena da; gure ahotsa, ilusioa eta indarra Alfonso Sastrenen bitartez Europan izango dela ospatzeko», diote. Bertarako gonbita egiten diete ezkertiar eta abertzale guztiei. Txartelak salgai izango dira ohiko tabernetan 15 euroren truke, eta langabetu eta ikasleentzat 10 euroan. Menua: pasta entsalada, karrillera, pastela, kafea eta kopa.

'Hannah Montana' filma Gurea aretoan asteburuan

VILLABONA • Gurea aretoan gaur 19:00etan eta bihar 17:00etan *Hannah Montana* filma emango dute.



SARIDUNAK

1 2 laguntzako otordua

Aburuza Sagardotegian

Olatza Baserría • Aduna
Tel.: 943 692 452 - Faxa: 943 692 153
aburuza@sidrasaburuza.com



• Izaskun Jauregi (Añoeta)

2 2 sarrera kontzerturako


Dulce Pontes

Ekainak 6 • Larunbata
20:30ean • Tolosako Leidorren



• Aitzol Udál Euskaltegia (Tolosa)

3 3 diskoz osaturiko sorta



baga-biga disketxearen eskutik

• Joxe Ramon Zubeldia (Baliarrain)

4 HITZAko materiala



• Leire Urdanibia (Tolosa)

harpidedunen **TXOKOA hitza**

Saridunaren harpidedun txartela aurkeztu beharra dago ziurtagiri moduan. Eskaintza berriak hileko azken astearte, asteazken eta ostegunetan argitaratuko dira.

anaitasuna
EKITALDI POLITIKOA
gaur
17:30
denok
IRUÑERA

aldaketa
POLITIKO ETA SOZIALAREN ALDE
bozkatu
www.iniciativainternacionalista.org
iniciativa
INTERNACIONALISTA

gaur • IRUÑEA

- **OIARTZUN** Propaganda banaketa 18:30 plazan
- **USANSOLO** Triki-poteoa goizean zehar
- **OTXARKOAGA** luntxa
- **ZUMAIA** Propaganda banaketa eta hamaiketakoa

bihar

- **DONOSTIA** Propaganda banaketa Alde Zaharrran
- **ATAUN** Mendi irteera 11:00 Zeharaiatik-San Martinera
- **TUTERA** Ekitaldia 13:00 San Jaime plazan
- **LASARTE** Ekitaldia 12:00 Okendo plazan

etzi

- **GERNIKA** Ekitaldia 20:00 Lizeo antzokian
- **TAFALLA** Ekitaldia 19:30 Kultur etxean

SPOT
ELEKTORALAK

ekainak 1
astelehena
9:00 **ETB 1**

ekainak 2
asteartea
10:30 **ETB 2**

ekainak 4
osteguna
10:30 **ETB 2**

Euskadikoan izango dira Belabietakoak

Ibarra » Gimnastika erritmikoko Belabietako taldeko neskek Gipuzkoako finala jokatu berri dute.



Ondo aritu dira azken bi asteburuetan Belabietako neskek. HITZA

taldekako mailan Belabietako seigarren geratu zen.

Alebin B mailako banakakoetan, aldiz, Idoia Ezeizak bigarren egin zuen, Maddi Belokik zazpigarren eta Aintzane Agirrek eta Irene Bengoetxeak hamabosgarren egin zuten.

Infantiletan Maider Zabalak laugarren egin zuen eta kadeteetako taldeak hirugarren egin zuen. Banakakoan, aldiz, Onintza Odrizolak bosgarren egin zuen eta Irati Maritxalarrek seigarren.

Kadete A mailako Izaro Esnaolak laugarren egin zuen eta jubenetako A mailako Garazi Egigurenek lehen postua eskuratu zuen.

Garbiñe Ubedak 'Mila ezker' liburua kaleratu du

Tolosa » Eskuina nagusi den gizarteetan ezkerrekoak izateak dakartzan zailtasunen inguruko hausnarketa egin du.

ERREDAKZIOA

Garbiñe Ubeda tolosarrak *Mila ezker* (Susa) izeneko liburua ateratu du. Bertan, eskuinekoa den gizartearen ezkerreko ideiazko zailtasunen inguruko hausnarketa egin du.

Prentsaurrekoan argitu zuenez, ezkerreko ideiazko zailtasunak jasan izan ditu, eta beraz liburua ezkerrekoan libre aritzeko probestu du. Horrela, ezkerreko ideiazko zailtasunaz gain, munduaren asimetriaren inguruko gogoeta ere egin du. Era berean, ezkerreko ideiazko zailtasunen arteko osagarritasunaz ere hitz egin du.

Mila ezker saiakera liburua bat da eta topikoak apurtzeko ere idatzi du: «Gauza txar asko esan dira ezkerreko buruz eta onegiak ere bai, baina gehienok tarrean gaude». «Ezkerreko artean jeinu handiak badira, baina eskuineko artean zer esanik ez», gaineratu du.

T Telefonoak Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Iruia. Osasun zentroa: 943 690720

Leizta. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leizta): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Udan ere ikastaro ugari izango dira Belabietan

Ibarra » Helduentzako zein haurrentzako ikastaroak izango dira; pilates, yoga, patinaia, gimnastika erritmikoa...

ERREDAKZIOA

Ibarrako Belabietako kiroldegia udarako antolatutako ikastaroen berri eman du. Guztira zazpi ikastaro eskainiko ditu ekainean, uztailean eta irailean.

Helduentzako ikastaroei dago-kionez, uztailean astelehenean eta asteazkenean 19:30ean edo 20:30ean cycling-a egongo da (23,30 euro abonatuentzat eta 55,10 euro ez abonatuentzat).

Pilatesa uztaileko astearte eta ostegunetan eskainiko dute 11:00etan edo 16:30ean (23,50 abonatuentzat eta 58,50 euro ez abo-

natuentzat). Yoga, aldiz, uztaileko eta iraileko astelehenean eta asteazkenean egin ahal izango da 10:45ean (19,50 euro abonatuentzat) eta 54 euro ez abonatuentzat) eta taichi-a iraileko astelehenean eta asteazkenean eskainiko dute 20:30ean (19,50 abonatuentzat eta 54 ez abonatuentzat).

Haurrentzako ikastaroak

Haurrentzako ekainean 29tik uztailean 10era goizetan gimnastika erritmikoa izango da (txikiak 22 euro ordaindu beharko dute eta handiek 23 euro). Patinaia uztailean 6tik 10era eskainiko dute 11:00etatik 13:00etara (22 euro) eta eskalada uztailean 6tik 10era eta 13tik 17ra egin ahal izango da 11:00etatik 13:00etara (22 euro).

Informazio gehiagorako edota izena emateko deitu 943 67 15 44 telefonora.

Txaramako eta Izaskungo jaiak

ERREDAKZIOA

Ibarrako Izaskun auzoko jaiak eta Txaramako festak izango dira asteburu honetan.

Txaraman atzo iluntzean hasi zituzten jaiak plazan egindako barrikotearekin. Gaur izango da, hala ere, jaietako azken eguna. 11:00etan botako dute suziria eta Leaburu-Txaramako dantzari gazteen dantza saioa ere izango da. Ondoren Toka Txapelketa egingo dute eta 13:00etan Pintxo Lehia-keta izango da. 16:00etan aldiz, haurrentzako eta helduentzako jolasak egongo dira eta 21:00etan herri afaria egingo dute. Ondoren,

Astiasaran trikitaliak ariko dira eta baita Amaia Agirre, Mikel Arrillaga, Jokin Labayen eta Aitzol Barandiarren bertsolariak ere.

Izaskunen, aldiz, gaur 18:30ean hasiko dituzte jaiak I. Zaldi Lasterketarekin, ondoren bertso-afaria izango da Mañukorta eta Zeberio-ekin. Bihar, igandea, herri kirolekin hasiko dute eguna eta herri bazakaria ere izango dute. Ondoren, Egaña eta Zubeldia bertsolariak ariko dira. 18:00etan *Gorriti eta bere animaliak* ere izango da eta bukatzerakoan pintxo eta sagado dastaketa egingo dute. 19:00etan erromeria izango da.

Bartolak danborrada berpiztuko du aurtengo jaietan

Ibarra » Egunean bertan, abuztuaren 21ean, egingo dute entsegu bakarra, 18:30ean; orain arte 60 bat lagunek eman dute izena.

ERREDAKZIOA

Ibarrako jaietan urteroko danborradaren ohitura iaiz galdu zen eta hau dela eta, Bartolaren Jai Batzordeko kideak aurtengo Bartolaren danborrada berreskuratu nahi dutela aipatu dute. «Duela hiru aste zerrendak jarri genituen herriko hainbat taberna, elkarte eta Gaztetxean. Denbora honetan erantzun bikaina eman dute ibarretarrek, izan ere, jada 60 lagun inguru eman dute izena. Oraindik jende gehiago apuntatuko dela uste dugu, horretarako epeak zabalik jarraitzen baitu», argitu dute.

Plangintza berria

Bartolo jaietan, abuztuaren 21ean, ospatuko dute danborrada Ibarrran.

Entsegu bakarra egun horretan burutuko dute, 18:30ean. Bartolaren Jai Batzordeko kideen esanetan, «jende ugari elkartzeko garenaz, entseguaren ondoren afari eder bat egingo dugu herriko elkarteetan. Ondoren kalera irtengo gara, ohi bezala danborrada herriko zehar egingo da. Nola ez, giro bikainean».

Jantzietan ere berrikuntzak egongo dira, izan ere, antolatzaileek jende berri «asko» espero dute: «Betiko uniformeak dituztenak horiek aterako dira. Jantzi horiek ez dituztenek, erosten ibili beharrean, nahiko izango dute ondorengo jatzera: abarkak, maoizko galtzak, blusa txuria eta zapi eta txapela morea».



Bartolaren Batzordeak danborrada berreskuratu du. BARTOLAREN JAI BATZORDEA



Lur Kortaren zuzendaritzapean, Txinpartako kideak: Beñat Huarte, koldo Lebron, Maitane Mariezcurrena, Jokin Baucis, Orkatx Erbiti, Jaione Mariezcurrena, Juani Barriola eta Maite Perurenaa. HITZA

Barañaingo V. Alegiatxo Antzerki Lehiaketan, Aktoreen Zerrenda Onenaren saria jaso berri du Leitzako Txinparta Antzerki Taldeak, 'Bihar osteguna da' antzezlanaekin. Etorkizunari begira jarrita ordea gauzak ilun ikusten dituzte.

Ez itzali argirik txinpartarik badago

ASIER IMAZ

Txinparta Antzerki Taldearen ibilbidea amaieran aurki daiteke. Leitzarrek etorkizuna ilun ikusten dute: «Laguntza gutxi dagoenez aurrera begira jarrita gaizki gaude. Azken urtean oso gaizki ibili gara zuzendariari ordaintzeko orduan. Azken obrarekin amaitu dugu oraingoz, hemendik aurrera ez dakigu».

Aurrera egiteko bide ezberdinak aztertzeke prest aurkitzen baldin badira ere, zuzendari baten finantzaketa lotzea ia beharrezkoa ikusten dute Txinpartako kideek. Horretarako erakunde desberdinetara zuzenduko dira.

Antzerkia, euskara eta boluntarioak auzolanean. Gezurra dirudien arren, Txinparta Antzerki Taldearen ezaugarri hauek nahikoa arrotz dira Nafarroan. Barañaingo Alegiatxo Antzerki Lehiaketa antolatzen dutenei galdetu bestela.

Azken emanaldi arrakastatsua
Barañaingo V. Alegiatxo Antzerki Lehiaketan Nafarroako 10 antzerki talde amateur aurkeztu ziren.

Azken bi hilabete hauetan, ostegunero, talde bakoitzak bere antzezlana aurkeztu du, tartean egon da leitzarren *Bihar osteguna da* antzezlana: «Aurreko urtean ere deitu ziguten Barañaingik, baina oso berde aurkitzen ginenez ezet esan genien. Dirudienez amateur mailan euskarazko antzezlana aurkitzeko zailtasun handiak di-

tuzte, aurreko geurea bakarrik da euskaraz, horregatik berriro deitu ziguten edizio honetarako eta baietz esan genien».

«Barañainen nola sentitu ginen? Herrian baino askozaz lasaiago. Etzeko ikuslea askozaz kritikoa da, kanpoan presio hori ez daukazu. Leitzan jendeak ezagutzen zaitu eta eszenatokira ateratzean barrez hasten dira, zure pintak ikusita. Ezagutzen ez zaituztenean hori ez da pasatzen».

Lehiaketa guztietan bezala, amaieran sariak banatu zituzten Barañainen. Txinparta taldeko kideek *Aktoreen Zerrenda Onenaren* saria jaso zuten.

Ibilbidearen hasiera

Barañainen antzeztu duten obra, *Bihar osteguna da*, Leitzan birritan estreinatu zuten, arazo teknikoak medio: «Lehen estreinaldia ez genuen ongi zabaldu, jende askok ez zekien antzerkia egin behar genuenik ere. Oso lanpetuta ibili ginen eta lan horretan huts egin genuen. Bigarren emanaldian jende gehiago etorri zen, hala eta guztiz ere *Hazparneko anderea* antzeztu genuenean jende gehiago hurbildu zen».

Txinparta Antzerki Taldeko kideek modu berezian gogoratzen dute *Hazparneko anderea* antzezlana, taldearen ibilbideko lehen mugarriz izaki, sorrerako lehen urratsak oroitzen baitituzte: «Leitzan elkarte bat sortu zuten emakume talde batek. Hauek zerbait

egin nahi zuten eta antzerki obra bat egitea bururatu zitzairen. Deialdi bat egin zuten eta horrela hasi ginen. Lehen urrats hauetan, ia urtebete zein antzezlana egin behar genuen pentsatzen aritu ginen. Zuzendari lanetarako norbait behar genuela ikusi genuen eta diru kopuru bat bazegoenez, lehen obra hau egin genuen. Leitzan, Goizuetan eta Lekuberrin antzeztu genuen eta jendea asko gustatu zitzaion, egia esan lan asko egin genuen. Ondoren Lur Kortara zuzendariak hartu zuen beste proiektu baten inguruan gu mugitzeko ardura. Taldeko batzuk joan egin ziren, eta beste batzuk etorri. Gauzak horrela, Maite Sarobek euskarara itzuli zuen *Mañana es jueves* antzezlana guretzat egokitu eta lanean hasi ginen».


Jarraitu beharreko Obidea

Ordu asko sartutako proiektua da Txinparta Antzerki Taldea. Afizioa ofizio bilakatzeko asmorik ez dute, baina gustura jarraituko lukete borrokan: «Tabernan edo etxean ere gustura egoten zara baina hori aldiro egiten duzu. Antzerkia gure artean ongi pasatzeko aukera bat da. Belaunaldi eta jende ezberdina biltzen gara, gure artean sortu den harreman hau agian antzerkirik gabe ez litzateke egongo. Pertsonalki erronka bat ere izan daiteke: lotsarekin puskatzea, ridikuloaren zentzu hori gainditzeko kapazitatea... eta horrek asko balio du».



AKTOREEN ZERRENDA ONENAREN SARIA

Barañaingo V. Alegiatxo Antzerki Amateur Lehiaketan, Leitzako Txinparta Antzerki Taldeak Aktoreen Zerrenda Onenaren saria jaso zuen hilaren 15ean. Taldeko kideek honela azaltzen dute saria: «Gidoiaren saria, jantziarena, eszenografiarena eta aktoreen zerrendaren sariak banatu zituzten. Guri azken hau eman ziguten, interpretazio maila orokorrean oinarritzen da; antzezle bakarria saritu beharrean talde bateko aktore guztien maila hartzen du kontuan sari honek».



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaledeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Zorionak!

Segundo eta Maritxu (Alkiza).
Zorionak zuen urrezko ezteietan.
Ondo pasa etxekoan partetik.



Zorionak!

Ekhi Bejarano Txapartegi.

Urte bat. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Zorionak!

*Anoetako Gorkoetxea
Alkizako Lete-Berri,
beraz bi gazte, eta bi bihotz
bi etxe eta bi herri,
baina ametsa bakarra biak
maiztasuna jaino berri,
ta geroz biak bete dituzte
berrogetamar udaberri.*

Agustina Iruretagoiena eta Manuel Odriozola. Gaur urrezko eztaiak.
Mila esker! Maite zaituztegu! Familiak.

A Agenda

Zinema

- **Tolosa.** Leidor aretoan, *Star trek XI* filma, 19:30ean eta 22:30ean. *Hannah Montana*, 17:00etan.
- **Villabona.** *Hannah Montana*, 19:00etan, Gurea aretoan ikusgai izango da.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

DISEINU GRAFIKO eta sormenean oinarritutako heziketa

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak



TITULAZIO OFIZIALAK

Nazioarteko lehiaketak
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .
ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA
WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es
INFORMAZIOA 943 310 873

Hertz Pasalekua 96 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 310 878



TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

ziklo guztiak euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

Aurrematrikula Ekainak 1etik 12ra

► **Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak**

► **Mekanizazioa**

► **Soldadura eta Galdaragintza**

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra